

UDALEKUEN ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea, zozketaren eremua eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500– duenak, bi zozketa egingo ditu: egonaldi bat Santo Domingo de la Calzadako (Errioxako) udalekuan eta beste egonaldi bat Fraisoro eskolan, Zizurkilen (Gipuzkoan), Basque Culinary Center bisitatzeko.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Super Bat haurrentzako aurrezki-kontuaren bezero guztiek hartuko dute parte zozketan, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan badute eta 2018ko apirilaren 17a baino lehen erreserba egiten badute LABORAL Kutxarekin itundutako udalekuetan, bai Santo Domingo de la Calzadan (Errioxan), bai Fraisoro eskolan, Zizurkilen (Gipuzkoan), Basque Culinary Center bisitatzeko. Kontu-titular bakoitzak opari bakarra jaso ahal izango du.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketa

Bi zozketak 2018ko apirilaren 24an egingo dira, ausazko sistema informatiko bidez, adierazitako epearen barruan Super Bat kontuaren bidez aipatutako bi kanpalekuetako batean erreserba bat egin duten guztien artean.

Gainera, zozketan ordezkoko 5 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

10 egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkorentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Bi sari zozkatuko ditugu. Irabazleari Santo Domingo de la Calzadako kanpalekuan erreserba egiteko ordaindutako zenbatekoa itzultzea izango da sarietako bat, eta Fraisoro eskolan kanpalekuan erreserba egiteko ordaindutako itzultzea izango da beste saria.

LABORAL Kutxak egoki deritzen moduan eta lekuan emango du saria.

6.- Sariaren zerga-sistema

LABORAL Kutxak ez du sariaren eragin fiskala bere gain hartuko; egotekotan, irabazlearen kontura izango da.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Gainera, zozketako irabazleak gutxienez argazki bat emango dio entitateari, horrek zozketa argitaratu eta ezagutarazteko erabil dezan.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.